



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA ALDATZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA.

Bat etorri zedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak aldatu behar dituen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abenduaren 17ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 3/2016 Foru Dekretua.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Beharrezko den aldaketa egin nahi da, aurrerago esango den helburua betetzeko.



ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa eta egokia da aldaketa egitea.
HELBURUAK	<p>Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren 14.1 artikuluko b) letraren arabera, errenta hauek salbuetsita daude: norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortzen diren korrituak eta gainerako etekinak eta ondasun higigarriek sortzen dituzten ondare irabaziak, baldin eta egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean daukatenek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen badituzte.</p> <p>Europar Batasunean kokatuta dauden pentsio funtsek edo inbertsio kolektiboko erakundeek lortutako errenten kasuan, salbuespena benetan aplikatzeko oztopoak egon daitezke, entitate horiek edo bertako kideek zailtasunak izan ditzaketelako egiaztatzeko egoitza, izan ere ez da arraroa pentsio funtsek eta inbertsio kolektiboko erakundeek ez edukitzea nortasun juridiko-fiskala jatorrizko jurisdikzioetan eta, ondorioz, jurisdikzio horietako zergagintzako agintariek ez ematea zerga egoitzaren ziurtagiria.</p> <p>Oztopo horiek gainditzekotan, foru dekretu horrek xedapen gehigarri berria eransten dio, hirugarrena, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Erregelamenduari, zeinak araubide berezia finkatzen baitu egoitza egiaztatzeko, zergaren foru arauaren 14.1.b) artikuluan jasotako salbuespena aplikatu ahal izateko.</p>
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Ez dago ordezeko konponbiderik.